

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Haman kazetari nafarrek hedabideen egungo egoera aztertuko dute ostegun honetan Madrilen

*Foru Gobernuak antolaturiko ekitaldian Nafarroako Unibertsitate Publikoak Jaime Brunet Saria emango dio Yoani Sánchez kazetari kubatarrari*

Miércoles, 05 de octubre de 2011

Hamar kazetari nafarrek hedabideen egungo egoera eta informazioaren profesionalek gainditu behar dituzten erronka nagusiak aztertuko dituzte ostegun honetan (urriak 6) Foru Gobernuak Madrilgo Prentsa Elkartearekin batera antolatu duen "Nafarroa hedabideetan" ekitaldiaren bigarren edizioaren barruan. Ekitaldia Madrilgo Prentsa Elkartearen egoitzan izango da 20:30etik aurrera.

Jardunaldian profesional hauek mintzatuko dira: David Beriáin Grupo Medina Media ikus-entzunezko ekoizpen-etxekoa, Beñat del Coso El Idealista higiezinaren agentziakoa, José Alfonso García Servimedia berrien agentziako zuzendari kudeatzailea, María Dolores Gesalí Sabor Mediterráneo gastronomiako aldizkari digitaleko zuzendaria eta Jesús Jiménez 400 Kilómetros (Navarra-Madrid) egunkari digitaleko zuzendaria.

Horiez gain, Rubén Jiménez Cotizalia-El Confidencia egunkari digitaletako teknologia eta ekintzaileak alorren arduradunak, Eduardo Laporte bloglari eta literatura-idazleak, Ángeles Macua Hola News telebista kateko koordinatzaileak, David Torres Público egunkariko zuzendari nagusiak eta Juan Antonio Villanueva Movi-Sports Comunicación enpresako zuzendari nagusiak hartuko dute parte.

Hamar kazetarietako bakoitzak labor azalduko ditu gainditu behar dituen erronka profesionalak, balorazio abstrakturik edo hedabideen egungo egoeraren azalpen orokorrik egin gabe. Kasu zehatz batzuk aurkeztuko dituzte, eta, horiek oinarri, hedabideen gaur egungo egoera zein den jakin ahal izango da. Ondoren, solasaldi irekia egingo dute.

### Jaime Brunet Saria

Jardunaldian zehar, Nafarroako Unibertsitate Publikoak 2010eko Giza Eskubideak Sustatzeagatiko Jaime Brunet Nazioarteko Saria emango dio Yoani Sánchez kazetari kubatarrari. Bertan egungo ez denez, saria Eugenia Tuya Anaya argitaletxeko editore eta saridunaren lagunak hartuko du.

Sariaren epaimahaiak Sánchezen (Kuba, 1975) lana nabarmendu zuen. Lana blog baten bidez egin zuen, baina Castroren erregimenak zentsuratu egin zuen 2008ko martxoan; Kubatarrek ikusi ezin badute ere, martxan jarraitu du.

Bloga ([www.desdecuba.com/generaciony](http://www.desdecuba.com/generaciony)) nazioarteko komunitateak aintzatetsi du hainbat sari entzutetsurekin. Besteak beste, azpimarratzekoak dira kazetaritzako Ortega y Gasset saria eta Nazioarteko Prentsa Institutuarena. Haren nabigazio-egunkaria munduko 25 koaderno onenetarikoan artean jarri dute Time eta CNNk.

Ekitaldian Salvador Estébanez Madrilgo Nafarroako Gobernuaren ordezkaria eta, erakunde antolatzaileen ordezkari gisa, Fernando González Urbaneja Madrilgo Prentsa Elkarteko presidentea izango dira, baita Alberto Catalán Jaime Brunet fundazioko patronatuko ohorezko presidenteorde eta Nafarroako Parlamentuko presidentea eta Eloísa Ramírez NUPeko Gizarte eta Kultura Proiektzioarako errektoreordea ere.